


ISEI - IVEI

**Rs7. ZIENTZIAN, MATEMATIKAN ETA
TEKNOLOGIAN TITULUDUNAK**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
Rs7.1 taula eta grafikoa: Zientzian, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua (HNSN 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	7
Rs7.2 taula eta grafikoa: Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua (HNSN 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera titulu motaren arabera eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	8
Rs7.3 taula eta grafikoa: Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko), ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2009-10 ikasturtea.	10
Rs7.4 taula: Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.	12
Rs7.5 taula: Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2010. urtea.	14



AIPATZEN DEN URTEAN ZIENTZIAN, MATEMATIKAN ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULUA (HNSN¹ 5A, 5B ETA 6)² LORTU DUEN 20-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN TASA (TITULUDUNAK MILA BIZTANLEKO).

Europako eta munduko garapen ekonomikoa sustatzeko asmoz eta Europak ikerketa zientifikoan duen presentzia gehitzeko asmoz, Europar Batasunak ezinbestekotzat jo zuen zientzia eta teknika ikasketetako matrikulak gehitzea eta ikasketa horietako tituludunak ikerketan hein handiagoan aritu daitezen bultzatzea. Eta horregatik izan zen adierazle hau Europar Batasunak 2010. urterako finkatutako helburuetako bat.

Adierazle honen oso aspektu deigarria da Zientzian, Matematikan edo Teknologian gizonezko eta emakumezko tituludunen artean dagoen aldea, gizonezkoen kopurua nabarmenki handiagoa baita. Ez da harritzekoa, beraz, Europar Batasunak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desoreka hori berdintzea helburutzat hartzea, eta, era berean, ikasketa zientifiko direlakoetako matrikula kopurua bi sexuen kasuetan handitzea.

Euskadin³, 2000-2010 aldian, etengabeko bilakaera positiboa ikus daiteke 2006ra arte, Zientzian, Matematikan eta Teknologian lizentziatuen tasa 2000n %20,2 izatetik 2006an %27,5 izatera pasa baitzen, azken urteetan gorabehera txiki batzuk izan baziren ere. Euskadiko tasa 2010ean %29,4koa zen, EBko herrialde guztietako tasarik altuenetakoa, seguru asko Euskadin oro har Lanbide Heziketari eta bereziki heziketa teknologikoari (HNSN 5B) eman zaien garrantziaren ondorioz.

2010. urtean, EB osatzen duten 27 herrialdeetan Zientzian, Matematikan eta Teknologian lizentziatuen batez besteko tasa %12,5ekoa zen. Hala ere, alde handia dago herrialdeen artean: batez besteko tasarik apalenak Luxenburgokoa (%3,1) eta Ziprekoa (%5,1) dira; handienak, berriz, Irlandakoa (%20,1) eta Finlandiakoa (%24,2).

2000-2010 aldian EBko 27 herrialdeetan Zientzian, Matematikan eta Teknologian lizentziatuen batez besteko tasa orokorrak gora egin zuen etengabe 2008ra arte, baina azken bi urteetan geldialdi bat izan zuen (%14,4), 2010ean %12,5era jaitsi arte. Jaitsiera erlatibo hori agian Italiako eta Frantziako 2010eko daturik ez edukitzearen ondorioa izan daiteke, eta baita zenbait herrialdetan (Estonia, Errumania, Portugal, Erresuma Batua) tituludunen tasa jaitsi izanarena ere. Azpimarratu beharrekoa da Irlandaren kasua, tasaren jaitsierarik handienetakoa izan duen herrialdea: 2005eko %24,8tik 2010eko %20,1era.

¹ Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz)

² HNSN 5A maila unibertsitateko tituluei dagokie, 5B maila goi mailako heziketa zikloei, eta 6 maila doktoretzei eta masterrei.

³ Euskadiko datuei dagokienez, 2003-04 ikasturtera arte EHUko doktoretza-tesiak bakarrik sartu dira. 2003-04 ikasturtetik aurrera Arrasateko eta Deustuko unibertsitateetako doktoretza-tesiak sartu dira. 2006-07 ikasturtetik aurrera Zientzian, Matematikan eta Teknologian masterrak sartu dira. .

Kasuan kasuko biztanleria eguneratua erabili da Ikasturte guztietan.



Berriro Euskadiren egoerari gatozkiolarik, 2010ean Zientzian, Matematikan eta Teknologian lizentziatuen tasak 1 puntuko igoera izan du aurreko urtekoarekiko, goi mailako Lanbide Heziketako irakaskuntzari dagokion tasa %12,5koa izan delarik. Lizentziaturen tasak (%7,6) eta diplomaturen tasak (%6,8) igoera apalagoa izan dute, baina masterren tasak 1 puntu baino gehiagoko igoera izan du, %1,7an geratu delarik. Doktoretza kopuruari dagokion tasa aurreko urtean bezala geratu da (%0,8).

Graduazioei buruzko datuak sexuaren aldetik aztertzen badira, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea, mantendu ez ezik, handitu egin dela ikus daiteke, aldea 2010ean bereziki nabarmena delarik. Hartara, Euskadin 2010ean Zientzian, Matematikan eta Teknologian graduatuen tasa emakumezkoen artean %17,3koa zen, gizonezkoen artean (%41,2) baino 23,9 puntu apalagoa. Datu horiek adierazten dute, graduatuen tasa emakumezkoen artean 2000tik aurrera astiro-astiro igotzen joan bada ere, gizonezkoen artean ere hein berean igo dela, eta, beraz, bien arteko aldea azken hamarkadan mantendu egin dela. Azken urtean berriz, lehen aipatu den bezala, aldea handitu egin da.

Arreta alderdi horretan jarri beharko litzateke, eta zientzia eta teknologia arloetan emakumezko graduatuen kopurua handitzen laguntzeko neurriak hartu. Hala ere, aldea nabarmenki txikiagoa da diplomaturen, lizentziaturen eta doktoretzen kasuetan, eta alderantzizkoa masterren kasuan. Hartara, 2010ean masterren tasa emakumezkoen artean %1,8koa da, eta gizonezkoen artean, %1,6koa.

Autonomia erkidegoei dagokienez, 2010ean Zientzian, Matematikan eta Teknologian graduatuen tasen arteko aldeek aurreko urteetako joera mantendu dute: lehen tokian Euskadi dago, lehen aipatutako %29,4ko tasarekin, gero Nafarroa (%23), Madril (%22,3) eta Asturias (%19,6). Sailkapenaren beste muturrean Melilla (%3,3) dago, gero Ceuta (%4) eta Balear Uharteak (%4,7). Hala ere, aipatu beharrekoa da Melillak 2009tik 2010era izan duen igoera. Urte horretan Espainian unibertsitateko ikasketetan graduatuen batez besteko tasa (%11,3) Zientzian eta Teknologian goi mailako graduatuen tasa (%15,6) baino apalagoa da. Egoera hori autonomia erkidego guztietan errepikatzen da.

Zientzian, Matematikan eta Teknologian graduatuen tasekin jarraituz, 2010eko Euskadiko tasa eta Europar Batasuneko 27 herrialdeetako tasekin (%12,5) konparatzen badugu, Euskadi sailkapenean lehen tokian dago hemen ere (%29,4), gero Finlandia (%24,2) eta Irlanda (%20,1). Goi mailako tituludunen tasarik txikienak, berriz, Luxenburgokoa (%3,1) eta Ziprekoa (%5,1) dira.

Beste alde batetik, lehen aipatu den bezala, bai EB-27 delakoan, bai autonomia erkidegoetan eta baita Euskadin ere, gizonezkoen tasa emakumezkoena baino handiagoa izaten da beti, eta joera mantendu egiten da. Horrek adierazten du ahalegin handiagoak egin behar direla joera hori aldatzeko. Emakumezkoen eta gizonezkoen tasen arteko alderik handienak, Euskadiren ostean, Finlandian (%20,5), Irlandan (%18,1) eta Lituanian (%15,2) ematen dira. Alde horretatik, tasen artean "berdintasunik"



Rs7

Zientzian, Matematikan eta Teknologian
tituludunak

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



handiena duten herrialdeak Luxenburgo (‰ 2,5) eta Zipre (‰ 2,3) dira.

Europar Batasuneko herrialdeetan, 2000-2010 aldirako helburutzat hartu zen Zientzian, Matematikan eta Teknologian goi mailako hezkuntzako graduatuen tasa orokorra %15 handitzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desoreka murriztea. 2010ean herrialde guztiek lortu zuten helburua. Ez dago Frantziako 2010eko daturik. Herrialde batzuetan (Erresuma Batua) igoera txikia izan da, eta beste batzuetan (Irlanda) jaitsiera bat ere izan da, baina hori herrialde horiek gainontzekoak baino tasa handiagoetatik abiatu zirelako gertatu da.

2010erako finkatu zen helburua Europar Batasuneko herrialde guztiek lortu dutenez, 2010-2020 aldirako helburutzat ez mantentzeko erabakia hartu da.




Rs7.1 taula eta grafikoa:

Zientzian, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua (HNSN 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

Ikasturtea	Tituludunen kopuru orokorra	20-29 urteko biztanleen kopurua	TASA MILA BIZTANLEKO		
			OROKORRA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
2000	6.871	339.699	20,2	10,9	29,1
2001	7.921	333.405	23,8	13,3	33,7
2002	7.980	324.688	24,6	13,3	35,3
2003	7.940	314.252	25,3	14,8	35,2
2004	7.811	298.907	26,1	15,1	36,6
2005	7.755	291.695	26,6	15,4	37,2
2006	7.587	275.686	27,5	16,5	38,0
2007	7.240	266.208	27,3	15,8	38,1
2008	7.103	255.286	27,8	16,6	38,6
2009	6.485	243.452	26,6	15,9	36,9
2010	6.830	232.149	29,4	17,3	41,2

Ikasturte guztietan biztanleria eguneratua erabili da, ikasturte bakoitzari zegokiona. 2003-04 ikasturtera arte UPV/EHUko doktorego-tesiak bakarrik hartu dira kontuan. 2004-05 ikasturtetik aurrera Mondragon eta Deustuko unibertsitateetako doktorego-tesiak sartu dira. 2006-07 ikasturtetik aurrera master tituluak sartu dira.



Iturria: EUSTAT.



Rs7

Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunak

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA




Rs7.2 taula eta grafikoa:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua (HNSN 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera titulu motaren arabera eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

	Lanbide Heziketa				Diplomatura				Lizentziatura			
	Sexu biak	Gizonezkoa	Emakumez	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoa	Emakumez	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoa	Emakumez	Aldea
1999-2000	7,7	2,9	12,3	9,4	5,3	2,4	8,1	5,8	6,9	5,5	8,3	2,8
2000-2001	11,2	4,7	17,5	12,8	5,0	2,6	7,4	4,8	7,2	5,8	8,5	2,7
2001-2002	12,5	5,3	19,2	13,9	4,9	2,5	7,2	4,7	6,9	5,3	8,4	3,1
2002-2003	13,5	6,2	20,4	14,2	4,6	2,6	6,6	4,0	6,8	5,6	8,0	2,3
2003-2004	13,5	6,4	20,3	13,9	5,2	2,8	7,5	4,7	7,2	5,7	8,6	2,8
2004-2005	13,3	6,0	20,3	14,3	5,5	3,1	7,9	4,8	7,4	5,9	8,8	2,8
2005-2006	12,5	5,4	19,2	13,8	6,4	4,0	8,7	4,6	8,1	6,6	9,4	2,8
2006-2007	12,4	5,1	19,4	14,3	6,2	3,7	8,5	4,9	7,7	6,2	9,1	3,0
2007-2008	11,2	4,5	17,6	13,1	7,3	4,2	10,3	6,1	8,2	6,6	9,7	3,1
2008-2009	11,5	4,6	18,0	13,4	6,5	3,9	9,1	5,1	7,3	5,9	8,7	2,9
2009-2010	12,5	4,7	20,0	15,3	6,8	4,0	9,6	5,6	7,6	6,1	9,0	2,9

	Doktoregoa				Master titulua			
	Sexu biak	Gizonezkoa	Emakumez	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoa	Emakumez	Aldea
1999-2000	0,3	0,2	0,4	0,2				
2000-2001	0,3	0,3	0,4	0,1				
2001-2002	0,3	0,2	0,4	0,2				
2002-2003	0,3	0,3	0,3	0,0				
2003-2004	0,2	0,1	0,2	0,0				
2004-2005	0,3	0,3	0,3	0,0				
2005-2006	0,5	0,4	0,7	0,3				
2006-2007	0,6	0,5	0,7	0,2	0,4	0,4	0,4	0,0
2007-2008	0,6	0,6	0,7	0,1	0,5	0,7	0,4	-0,3
2008-2009	0,8	0,9	0,7	-0,2	0,5	0,6	0,5	-0,1
2009-2010	0,8	0,7	0,9	0,2	1,7	1,8	1,6	-0,2






Iturria: EUSTAT.



Rs7.2.2 grafikoak:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua (HNSN 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera titulu motaren arabera eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.




Iturria: EUSTAT.



Rs7.3 taula eta grafikoak:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko), ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2009-10 ikasturtea.

	Goi mailako hezkuntza			Goi mailako Heziketa Zikloak			Unibertsitateko hezkuntza		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
GUZTIRA	15,6	21,0	10,1	4,3	7,0	1,5	11,3	14,0	8,6
Andaluzia	11,5	15,4	7,5	3,4	5,4	1,3	8,1	10,0	6,2
Aragoi	15,4	20,5	10,1	4,3	7,4	1,1	11,1	13,1	9,0
Asturias	19,6	26,3	12,7	5,8	9,3	2,3	13,8	17,0	10,4
Balear Uharteak	4,7	6,8	2,5	1,8	3,2	0,4	2,9	3,6	2,1
Kanariak	6,9	9,7	4,1	2,6	4,0	1,2	4,3	5,7	2,9
Kantabria	16,3	22,8	9,6	4,5	6,9	2,1	11,8	15,9	7,5
Gaztela eta Leon	18,7	23,9	13,3	5,1	8,2	1,9	13,6	15,7	11,4
Gaztela-Mantxa	8,4	12,4	4,3	3,6	5,9	1,2	4,8	6,5	3,1
Katalunia	17,7	23,8	11,4	4,8	7,9	1,6	12,9	15,9	9,8
Valentziako Erk.	14,9	20,0	9,5	4,1	6,8	1,2	10,8	13,2	8,3
Extremadura	11,1	15,2	6,9	4,0	6,6	1,3	7,1	8,6	5,6
Galizia	17,1	22,5	11,5	5,4	8,6	2,0	11,7	13,9	9,5
Madril (Erk.)	22,3	30,3	14,1	3,5	5,9	1,1	18,8	24,4	13,0
Murtzia	12,7	16,8	8,2	2,7	4,3	1,0	10,0	12,5	7,2
Nafarroa	23,0	30,8	14,8	5,8	10,1	1,3	17,2	20,7	13,5
EUSKADI	29,4	41,2	17,3	12,5	20,0	4,7	16,9	21,1	12,6
Errioxa	11,7	14,9	8,4	5,0	8,5	1,3	6,7	6,4	7,1
Ceuta	4,0	5,7	2,3	3,4	4,6	2,1	0,6	1,1	0,2
Melilla	3,3	4,9	1,6	3,0	4,4	1,6	0,3	0,5	0,0



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua


Iturria: MECeko estatistika bulegoa, EUROSTAT metodologiarekin.

* Euskadirako EUSTATen datuak.




Rs7.3 taula eta grafikoak (jarr.):

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko), ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera. 2009-10 ikasturtea.



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua.

Iturria: MECeko estatistika bulegoa, EUROSTAT metodologiarekin.
* Euskadirako EUSTATen datuak.



Rs7.4 taula:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
EB (27 herrialde)	10,1 s	10,7 s	11,3 s	12,3 s	12,5 s	13,3	13,5	13,8	14,5	14,4 (i)	12,5 (i)
Alemania	8,2	8,0	8,1	8,4	9,0	9,7	10,7	11,4	12,5	13,5	14,8
Austria	7,2 i	7,3	7,9	8,2	8,7	9,8	10,8	11,1	11,8	14,0	15,5
Belgika	9,7 i	10,1 i	10,5 i	11,0 i	11,2 i	10,9 i	10,6 i	14,0 i	11,6 i	12,0	12,2
Bulgaria	6,6	7,5	11,7	8,3	8,5	8,6	8,5	8,4	9,1	10,1	11,4
Zipre	3,4	3,7	3,8	3,6	4,2	3,6	4,3	4,2	4,0	4,6	5,1
Danimarka	11,7	12,2	11,7	12,5	13,8	14,7	13,8	16,4	15,5	15,2	16,5
Eslovakia	5,3	7,5	7,8	8,3	9,2	10,2	10,3	11,9	15,0	17,5	18,3
Eslovenia	8,9	8,2	9,5	8,7	9,3	9,8	9,5	9,8	10,7	11,3	14,8
Espainia	9,9	11,2	11,9	12,6	12,5	11,8	11,5	11,2	11,6	12,5	13,9
Estonia	7,8 i	8,3 i	8,0 i	8,8	8,9	12,1	11,2	13,3	11,4	10,8	11,3
Euskadi*	20,2	23,8	24,6	25,3	26,1	26,6	27,5	27,3	27,8	26,6	29,4
Finlandia	16,0	17,2	17,4	17,4	17,9	18,1	17,9	18,8	24,3	19,0	24,2
Frantzia	19,6	20,2	:	22,2	:	22,8	20,7	20,8	20,2	20,4	:
Grezia	:	:	:	:	8,0	10,1 i	:	u	8,5	11,2	:
Herbehereak	5,8	6,1	6,6	7,3	7,9	8,6	9,0	8,9	8,8	8,9	9,2
Hungaria	4,5	3,7	4,8	4,8	5,1 i	5,1	5,8	6,4	6,1	7,5	8,3
Irlanda	24,2	22,9	20,5	24,2	23,1	24,5	21,4	18,7	19,5	17,2	20,1
Italia	5,7	6,2	7,4	9,1	10,8	11,6	12,1	11,4	11,3 i	:	(u)
Letonia	7,4	7,6	8,1	8,6	9,4	9,8	8,9	9,2	8,8	9,8	10,7
Lituania	13,5	14,8	14,6	16,3	17,5	18,9	19,5	18,1	17,8	18,5	18,7
Luxenburgo	1,8	:	:	:	:	:	:	:	1,8	:	3,1
Malta	3,4	2,7	3,1	3,6	:	3,4	5,0	7,1	6,0	7,0	8,0
Polonia	6,6 i	7,6	8,3	9,0	9,4	11,1	13,3	13,9	14,1	14,3	15,8
Portugal	6,3	6,6	7,4	8,2	11,0 i	12,0	12,6	18,1	20,7	14,6	14,4
Erresuma Batua	18,5	20,0 i	20,2	20,9	18,1	19,2	18,9	18,5	19,2	17,5	18,7
Txekiar Errepublika	5,5	5,6	6,0	6,4	7,4	8,2	10,0	12,0	15,0	15,3	16,5
Errumania	4,5 i	4,9 i	5,8 i	9,4	9,8	10,3	10,5	11,9	15,2	20,0	15,6
Suedia	11,6	12,4	13,3	13,9	15,9 i	14,4	15,1	13,6	13,2	13,0	14,0

(:) datua ez dago eskuragarri. (s) EUROSTATen kalkulua. (i) Ikus testu argigarriak:

http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en /strind/innore_ir04.htm. (u) Zalantzarik edo fidagarritasun txikiko datua.

Iturria: EUROSTAT.

* Euskadiraiko EUSTATen datuak.



Rs7


Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunak

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs7.4.1 grafikoa:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera, Europar Batasuneko herrialdeetan⁴. 2006. eta 2010. urteak.



"2010. urtea" irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua".

Iturria: EUROSTAT.

* Euskadiraiko EUSTATen datuak.

⁴ Frantzia eta Italia ez daude, 2010. urteko datuak falta zaizkielako.



Rs7.5 taula:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2010. urtea.

	Sexu biak		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Aldea	
EB (27 herrialde)	12,5	(i)	16,6	(i)	8,3	(i)	8,3	(i)
Alemania	14,8		20,1		9,3		10,8	
Austria	15,5		23,6		7,3		16,3	
Belgika	12,2		18,6		5,9		12,7	
Bulgaria	11,4		13,6		9,1		4,5	
Zipre	5,1		6,2		3,9		2,3	
Danimarka	16,5		20,6		12,2		8,4	
Eslovakia	18,3		23,0		13,4		9,6	
Eslovenia	14,8		20,2		8,7		11,5	
Espainia	13,9		18,9		8,6		10,3	
Estonia	11,3		13,5		8,9		4,6	
Euskadi*	29,4		41,2		17,3		23,9	
Finlandia	24,2		34,2		13,7		20,5	
Frantzia	
Grezia	12,8		14,8		10,5		4,3	
Herbehereak	9,2		14,4		3,8		10,6	
Hungaria	8,3		11,4		4,9		6,5	
Irlanda	20,1		29,3		11,2		18,1	
Italia		(u)		(u)		(u)		(u)
Letonia	10,7		14,4		6,9		7,5	
Lituania	18,7		26,1		10,9		15,2	
Luxenburgo	3,1		4,3		1,8		2,5	
Malta	8,0		10,3		5,4		4,9	
Polonia	15,8		19,1		12,4		6,7	
Portugal	14,4		17,8		10,8		7,0	
Erresuma Batua	18,7		25,6		11,5		14,1	
Txekiar Errepublika	16,5		22,4		10,2		12,2	
Errumania	15,6		18,4		12,7		5,7	
Suedia	14,0		18,2		9,6		8,6	

(.) datua ez dago eskuragarri. ((u) Zalantzezko edo fidagarritasun txikiko datua. (i) Ikus testu argigarriak:
http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en /strind/innore_ir04.htm.


Iturria: EUROSTAT.

* Euskadirako EUSTATen datuak.



Rs7.5 grafikoa:

Zientzietan, Matematikan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan⁵ sexuaren arabera. 2010. urtea.



"Sexu biak" irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT.

* Euskadiraiko EUSTATen datuak.

⁵ Frantzia eta Italia ez daude, datuak falta zaizkielako.